



118. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2018ko martxoaren 15ean, arratsaldeko sei eta erdietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria:

Oier Korta Esnal jna.

Bertaratutako zinegotziak:

M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Gotzon Embil Unanue jna.
Cristina Vicente Iciar and.
Ane Arregi Urbietta, and.
Alex Oliden Antia jna.
Arritokieta Iribar Egaña and.
Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.
Ione Muguerza Egaña jna.
Miren Pilare Galfarsoro Madariaga and.
Arritokieta Marañon Basarte and.

Ez bertaratuak

Jon Joseba Iraola Rezola jna.
Josu Arrieta Arriola jna.

Idazkaria:

Gorka Urgoiti Agirre



**1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA:
(114. zenbakia – 2017.10.09)**

onartuta gelditzen da akta.

2.- OGASUNA.-

2.1.- IRIZPENAK.

**2.1.1.- OIKIA 28KO FATXADA ERABERRITZEARI DAGOKION ZERGARI HOBARIA
APLIKATZEA ETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**ORDENANTZA FISKALETAN %95EKO HOBARIA BARNERATZEARI BUZUKO IRIZPENA: OIKIA 28KO ERAIKINEAN
FATXADA ERABERRITZEKO PROIEKTUAN**

AURREKARIAK

2018ko otsailaren 15ean Oikia 28ko jabekideek etxebizitzako fatxada berrizatzeko aurrekontuarekin batera (Espedientea: 2018 HBLT0011) Zumaia udalari indarrean den Eraikuntza eta Obren Gaineko Zergen ordenantzak bere 3. artikuluan dioenaren arabera, %95eko hobaria aplikatzearen eskaera egin dio. Udaleko Hirigintza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak Saileko arduradunaren aldeko txostena du.

IRIZPENA

Horregatik, 2018ko martxoaren 9an ospatzen den batzorde honek onartzen du eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria ematea, hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 4 (2 EAJ-PNV, 1 EH BILDU eta 1 PSE-EE)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea erabakitzen da.

Zumaian, 2018ko martxoaren 9an.
Kontu-hartzailea.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: (5 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Oikia 28ko eraikinean fatxada eraberritzeko proiektuan, %95eko hobaria ematea onartzen da .-



2.1.2.- TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN APARKATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

2018KO MARTXOAREN 9KO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, ONDORENGO ORDENANTZA FISKALA ONARTZEKO: TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN APARKATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

AURREKARIAK

2017ko abenduaren 12an 2018 urterako ordenantza fiskalak argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

2018ko martxoaren 9ko Ogasun Batzordean trakzio mekanikozko ibilgailuak bide publikoetan aparkatzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzeko ordenantzaren aldaketa aurkezten da. Jarraian behin betiko onespenerako irizpenaren bozketa egin da.

Irizpen honi Ordenantza Fiskalaren proposamena eranstean zaio.(1.Eranskina)

IRIZPENA

Ondorioz, eta kontu-hartzailearen txostena ikusirik, 2018ko martxoaren 9an, Ogasun Batzordeak aldeko **irizpena jaso du** hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 2 EAJ-PNV
Aurkako botoak: 1 EH BILDU
Abstentzia: 1 PSE-EE

Honako PROPOSAMEN hau udalbatzako Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Hasierako onarpena ematea Ordenantza Fiskalaren aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberan, udaleko iragarki taulan eta GAON argitaratu hogeita hamar egun balioduneko epean zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoren erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2018ko martxoaren 9an
Kontu-hartzailea

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Pixakt da azken finean, ordenantza bertan azaltzen diren zerga-kuotak aipatzea, Ordenantza honek trakzio mekanikodun ibilgailuak Zumaia udalerrian aparkatzeari buruzko araudi erregulatuak zehazten duenaren arabera, udal bide publikoetan zehaztutako alderdietan aparkatzen direnean sortzen den udalaren herri jabetzaren aprobetxamendu berezia da tasa honen egitate zergagarria.



Zumaia Udala

2018IAKU0002-004-004

Aparkatzeko bereizgarria edo baimena lortu eta, kasu bakoitzean, dagokion baldintzetan aparkatu ahal izateko eta honako zerga-kuotak ezarri dira:

Egoiliarrentzako txartela urtekoa

- 1. txartela25 €
- 2. txartela35 €
- 3. txartela 45 €
- 4. txartela 55€

Eta gero egoiliarrek **udako** denboraldirako, baita ere lau txartel egongo dira

- 1. txartela10 €
- 2. txartela 15 €
- 3. txartela 20 €
- 4. txartela 25€

Egoiliarrentzako aparteko txartela/bereizgarri berezia urteko kasu honetan

- 1. txartela25 €

Eta **udako** denboraldirako ere

- 1. txartela10 €

Egoiliarrentzako aparteko txartela/bereizgarri berezia urteko denboraldirako (bizileku bakoitzeko), ibilgailua Zumaian altan ez emandakoak, hemen

- 1. txartela edo bereizgarria.....35 €

Eta **udako** denboraldirako

- 1. txartela edo bereizgarria.....15 €

Jarduera ekonomikoekin lotutako ibilgailuen aparteko txartela/bereizgarria, urteko denboraldirako

Hemen,

- 1. txartela35 €
- 2. txartela70 €
- 3. txartela 80€

Eta Zumaian altan ez emandakoak kasu hauetan:

- 1. txartela45 €
- 2. txartela80 €
- 3. txartela 100€

Txartela/bereizgarria bigarren etxebizitzako, urteko denboraldirako

- 1. txartela35 €

Eta **udako denboraldirako**

- 1. txartela 15 €

Egoiliarrek ez diren langile, eta autonomoen aparteko bereizgarria, udako denboraldirako

- Txartela20 €



Zumaia Udala Aratu gabeko guneetako egoiliarren bereizgarria, udako denboraldia, Zumaian errolatuak.

2018IAKU0002-004-004

- 1. Txartela10 €
- 2. Txartela15€
- 3. Txartela 20€

Aratu gabeko guneetako egoiliarren bereizgarria, udako denboraldia, Zumaian ez errolatuak

- 1. Txartela15 €
- 2. Txartela20€
- 3. Txartela 25€

Salaketen kasuan:

Salaketa deuseztatu, errotazio handiko eta egonaldi ertaineko zonaldean, 90 minutuko muga gainditu gabe.....10€

Eta Salaketa deuseztatu, egoiliarren zonaldean, 90 minutuko muga gainditu gabe.....20€

Txartel edo bereizgarriaren ordezkapenagatik, ibilgailuaren edo etxebizitzaren aldaketagatik, edota beste edozein arrazoiengatik txartel berri bat eskatu nahi izanez gero, kasu horretan5€ ordaindu beharko lirateke

Eta gero aipatu ez direnak jasotzen dituen taula aparkatzeko txartela atera behar den zonaldeetako tarifak taula dago eta hor dago errotazio handiko taula 30´ dohaini zango litzateke guztientzat eta gero erregulutzen dira denboretan tarifak,

Eta gero egonaldi ertaina,

Egonaldi ertainean berdin, hemen daude Julio Beobide, Itsas Kiroldegia, Axular eta GKN, eta bertan azaltzen dira denboran ordaindu beharreko tasak,

| zonaldea | Denbora | | | | | | | | | | | |
|-----------------------------|---------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| | 15´ | 30´ | 60´ | 90´ | 120´ | 180´ | 240´ | 300´ | 360´ | 420´ | 540´ | 660´ |
| Errotazio handikoa | | | | | | | | | | | | |
| A1- A2 | 0€ | 0€ | 1,25 | 2,00 | x | x | x | x | x | x | x | x |
| A3 | 0€ | 0€ | 1,25 | 2,00 | x | x | x | x | x | x | x | x |
| B1 | 0€ | 0€ | 1,25 | 2,00 | x | x | x | x | x | x | x | x |
| B2 | 0€ | 0€ | 1,25 | 2,00 | x | x | x | x | x | x | x | x |
| C1 | 0€ | 0€ | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x |
| Egonaldi Ertaina | | | | | | | | | | | | |
| 1.- Julio Beobide | 0,25 | 0,50 | 1,00 | 1,75 | 2,50 | 4,00 | 5,50 | 7,00 | 8,50 | x | x | x |
| 2.- Itsas Kiroldegia | 0,25 | 0,50 | 1,00 | 1,75 | 2,50 | 4,00 | 5,50 | 7,00 | 8,50 | x | x | x |
| 3.- Axular | 0,25 | 0,50 | 0,75 | 1,25 | 1,50 | 2,00 | 2,75 | 3,5 | 4,25 | 5 | 6,5 | 8 |
| 4.- GKN | 0,25 | 0,50 | 0,75 | 1,25 | 1,50 | 2,00 | 2,75 | 3,5 | 4,25 | 5 | 6,5 | 8 |
| | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | |



ARRITXU MARAÑON (ES-SV): Yo simplemente comentar, ya digo que me voy a abstener en la votación del dictamen y que el dictamen es un poco distinto al que aprobamos el otro día en la comisión de hacienda y en este sentido, ahí va el sentido precisamente de la abstención, porque no es la misma ordenanza que aprobamos el otro día en hacienda y señalar que en todo caso me abstengo para favorecer que salga pero dejando claro que se aplicará la ordenanza en los términos en los que se aprueba hoy en este pleno en todos sus aspectos

ALEX OLIDEN (EH-BILDU): Nik neurea egiten ditut Arritxuren hitzak eta baita ere esan motxean ordenantza berari ere abstentzioa eman geniola, ordenantzari abstentzioa emateko arrazoiak bere horretan mantentzen direla ordenantza fiskal honetan, eta horregatik abstentzioa emango dugula.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: (5 EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 6 boto (5 EH BILDU, 1 ES-SV)

ERABAKIA:

1.- Hasierako onarpena ematea 2018. urterako Ordenantza Fiskalaren aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberako, udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratu hogoita hamar egunetan zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkeztzen ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

3.- HIRIGINTZA.-

3.1.- IRIZPENA:



Zumaia Udala

2018IAKU0002-004-004

3.1.1.- KANTAURI PLAZAKO 4. PORTALEKO LEHENENGO SOLAIRUAN A, B, C ETA D ETXEBIZITZEN UDAL-TASATU KALIFIKAZIOA (ARAUBIDE BEREZIKOA) ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2017KO ABENDUAREN 14KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA: KANTAURI PLAZAKO 4. PORTALEKO LEHENENGO SOLAIRUAN A, B, C ETA D ETXEBIZITZEN UDAL-TASATU KALIFIKAZIOA (ARAUBIDE BEREZIKOA) EMATEARI BURUZKOA

AURREKARIAK

1.- 1996ko otsailaren 6an Zumaia Udalak eta Altuna y Uria, S.A.-k hitzarmena sinatu zuten 17/1994 Legeak ezarritako babes ofizialeko estandarra betetze aldera. Hartara, besteak beste, SR-2 lur-zatian 4 etxebizitza tasatu egitea hitzartu zen, Kantauri plazako 4 portaeko lehenengo solairuan A, B, C eta D etxebizitzak, hain zuzen ere.

Altuna y Uria, S.A.-k 2001eko maiatzaren 25ean Zumaia Udalarari eskatu zion kalifikazio aldaketa egin zezan, zehazki, prezio tasatuko etxebizitzak izateetik alokairu babestura izatera.

Urte bereko urriaren 2an Zumaia Udalak lehen okupazio lizentzia eman zion alokairu babestua kalifikazioarekin.

2011ko urriaren 13an eskritura publikoa sinatu zen etxebizitza horiek Altuna y Uria, S.A.-ren jabetzatik LOIOLA GESTION INMOBILIARIA. S.L.-ren jabetzara pasatuaz.

Eusko Jaurlaritzako etxebizitza sailak 2016ko ekainaren 18an idatzia eman zuen non ziurtatzen duen lau etxebizitza haiek ez daudela inolako etxebizitza babesturen araubide juridikora lotuta.

LOIOLA GESTION INMOBILIARIA, S.L.ek idatziak sartu ditu Zumaia Udaleko Erregistroan –azkena 2017ko urriaren 23an- Udalak lau etxebizitza horiei Zumaia etxebizitza tasatuen kalifikazioa eman diezaion.

2.- Loiola Gestión Inmobiliaria, S.L.-ek Kantauri plaza 4-n kalifikatu nahi dituen etxebizitzaren ezaugarriak honako hauek:

- 1 A azalera: 84,39 m²
- 1 B azalera: 88,35 m²
- 1 C azalera: 96,45 m²
- 1 D azalera: 89,99 m²

3.- Zumaia etxebizitza tasatuen arabera eta kontuan hartuta udal teknikariek egindako txosten tekniko-juridikoak, kantauriko etxebizitzek aipatu ordenantzaren baldintzak betetzeaz gain, besteak beste, ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

- Araubide bereziko udal etxebizitza tasatuak izango dira.
- Eskuratzeko jabetza osoan izango da.
- Gehinezko prezioa erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitza babestuen 1,7 indizea izango du.
- Etxebizitza bakoitzak aparkaleku eta trasteleku bana izango du.
- 1 C etxebizitza familia edo bizikidetzaren unitate handientzako bideratuko dira.
- Kalifikazioa iraunkorra izango da eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidearekin lotuta egongo dira, lehenengo Udalaren alde, eta, subsidiarioki, Eusko Jaurlaritzaren alde.

4.- Kantauri 4 zbk 1 B etxebizitzaren gainean indarrean dihardu Altuna y Uria, S.A.-k eta Jesús Aguirrezabalaga Chapartegui jaunak eta D^a Raimunda Iparraguirre Alcibar andereak sinatutako errentamentu-kontratua; iraupen mugagabekoa.

Bi errentarien adina dela-eta etxealdaketak dakarren konplexutasuna ikusirik, egoki ikusten da egun indarrean dagoen kontratua mantentzea haien heriotza suertatzen ez den bitartean.

Hartara, 4. Zbk Kantauri 1 B udal-tasatu sailkapenaren gainean baldintza etengarria ezarriko da non kalifikazioa edo etxebizitza babestuko araubidea etenda geratuko den bi errentarien heriotza suertatzen ez den bitartean; momentu horretan kalifikazioak indarraldi osoa emanaz.



IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko abenduaren 18ko Hirigintza eta Zerbitzu Batzorde informatzaileak, boto hauekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Alex Oliden Antia (Bildu)
Aurka: 0
Abstentzioa: Aritxu Marañon Basarte (PSE)

jarraian azaltzen den **PROPOSAMENARI ALDEKO** irizpena eman dio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 151 artikulua xedatutakoaren arabera eta proposamen hau udalbatzaren osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du. Osoko udalbatzak hartu beharko du erabakia, bertan daudenen gehiengo soilaz, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan eta Toki Erakundeetako Ondasunen Arautegia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 114. artikuluan ezarritakoaren arabera:

1.- KANTAURI PLAZAKO 4. PORTALEKO LEHENENGO SOLAIRUAN A, B, C ETA D ETXEBIZITZEI UDAL-TASATU BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA (ARAUBIDE BEREZIKOA) EMATEA.

2.- Kantuari plaza 4 zbk 1. B etxebizitzaren kalifikazioari baldintza etengarria edo etorkizuneko eta ezezaguna den egitea ezartzea. Hartara, Jesús Aguirrezabalaga Chapartegui jaunaren eta D^a Raimunda Iparraguirre Alcibar anderearen heriotza suertatzen denean errentamendu-kontratua iraungiko da, eta haren ondotik udal-etxebizitza tasatuaren araubideak eragin juridiko osoa emanez.

3.- ERABAKIA GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN ETA UDALEKO IRAGARKI TAULAN ARGITARATZEA.

4.- AZPEITIKO JABETZA ERREGISTROAN KALIFIKAZIO BERRIA INSKRIBATZEKO TRAMITEAK EGIN DAITEZELA.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 5 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 1 boto (ES-SV)

Abstentzioak: 5 boto (EH BILDU)

ERABAKIA: 1.- Kantauri plazako 4. portaleko lehenengo solairuan A, B, C eta D etxebizitzei udal-tasatu behin betiko kalifikazio (araubide berezikoa) izaerarekin onartzea.-

2.- Behin betiko onespeneren iragarkia udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratzea.

3.- Azpeitiko jabetza erregistroan kalifikazio berria inskribatzeko tramiteak egitea onartzen da



3.2.- PROPOSAMENA:

3.2.1.- ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIOEN 17 HA-ARTADIKO 17.1 EGIKARITZE-UNITATEAREN XEHETASUN-AZTERKETAREN OFIZIOZKO BERRIKUSKETAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.-

Ikusirik 2017ko urriaren 9ko ezohiko batzarraldian Osoko Bilkurak behin betikoz onartu zuela Artadiko 17 HA-EU 17.1 xehetasun azterketa.

Ikusirik 2017ko azaroaren 22an Isabel eta Raquel Gorriti Amor andereek Berraztertze errekurtsua aurkeztu zutela.

Ikusirik udal-arkitektoaren txostenak, Planeamenduko 2159/1978 Errege Dekretuaren 65. Arabera, adierazten duela aipatu xehetasun azterketak bolumen-ordenazioa egiterakoan Zumaia ARAU Subsidiarioek ezarritako gehienezko altuera-mugak gainditu dituela.

Ikusirik, 39/2015 Legeak, Herri-administrazioen prozedura erkidea arautzen duenak, 47. artikuluan erabat deuseza jotzen duela administrazio-egintzak ematea egokia ez den prozedura bitartez; eta 106. Artikuluak, berriz, herri-administrazioei ahalmena aitortzen diela egintza propioak ofizioz berrikustea.

PROPOSAMENA

Lehena.- Isabel eta Raquel Gorriti Amor andereek aurkeztutako Berraztertze errekurtsua zati batean baiestea.

Bigarrena.- Artadiko 17 HA-EU 17.1-eko xehetasun azterketa erabat deuseza den heinean, behin betiko onarpenera eman zion administrazio-egintza ofizioz berrikusi bedi.

Hirugarrena.- Akordioa Interesdunei jakinaraztea.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (5 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Isabel eta Raquel Gorriti Amor andereek aurkeztutako Berraztertze errekurtsua zati batean onartzea.-

2.- Artadiko 17 HA-EU 17.1-eko xehetasun azterketa erabat deuseza den heinean, behin betiko onarpenera eman zion administrazio-egintza ofizioz berrikustea.-

3.- Akordioa Interesdunei jakinaraztea.-



Zumaia Udala

2018IAKU0002-004-004

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak hogeit gutxi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria